

CAF-EK INTERCITY TRENEN KONTRATU HANDIA LORTU DU MAROKON

Ekitaldi-hasiera iazko urtearen amaiera bezain positiboa ari da izaten CAFentzat. Izan ere, proiektu esanguratsuak lortu ditu eta, oraingoan, Marokon lortu duen garrantzi handiko kontratu berri baten esleipena aipatu behar dugu. Horri esker, gaur egun enpresak duen eskarien zorro handia sendotu egin da.

Marokoko erreinuko trenbide-sareko operadore nazionalak, ONCF (Office National des Chemins de Fer) enpresak, CAF hautatu du Marokoko trenbide-sarean zerbitzua emango duten 30 intercity tren moderno hornitzeko kontratuaren hornitzailea izan dadin. Kontratuak, gainera, etorkizunean kontratuaren irismena beste 10 unitaterekin handitzeko eta ONCFrentzat parkeko piezak hornitzeko eta laguntza teknikoa emateko zerbitzu-kontratua garatzeko aukerak jasotzen ditu.

CAFentzat garrantzi handiko mugarria da, enpresak Marokon lortutako lehen proiektua baita. Bolumena 600 milioi euro ingurukoa izango da, etorkizunean ONCFk aktiba ditzakeen aukera posibleak kontuan hartu gabe, eta kontratua Espainiako Gobernuaren FEIM (Enpresa Nazioartekotzeko Funtsa) funtsen bidez finantzatuko da.

Proiektu honetarako CAFek diseinatutako unitateak prestazio eta erosotasun maila goreneko intercity trenak dira, eta 200 km/h-ko abiaduran operatzeko prestatuta daude. Gainera, garraio-edukiera handia izango dute; izan ere, besteak beste, eserita joateko 500 plaza baino gehiago eta mugikortasun murritzuko pertsonentzako guneak.

ONCFk aurrez ikusitakoaren arabera, hornitutako trenek Marokoko hiri nagusiak lotuz eskainiko dute zerbitzua, Fez-Marrakex, eta Kenitra-Fez elkartzen dituzten lineen bidez. Material ibilgarri berriak nabarmen hobetuko du herrialdeko tren-zerbitzuen kalitatea; izan ere, eskualde arteko konektagarritasuna hobetu eta bidaiarien garraio-edukierak handituko ditu.

Horrekin lotuta, Maroko bere azpiegiturak modernizatzeko eta hobetzeko helburu handiko planean barneratuta dago gaur egun, eta arreta berezia jarri du bere trenbide-sarean. Hori dela eta, garapenean parte hartzeko CAF aukeratu izanak enpresak azken urteotan izandako ibilbideari egindako aitortza argia ekarri du berekin. Hala, enpresak helburu horiek lortzen lagunduko du bere esperientziari eta gaitasun teknologiarri esker.

Zehatzago esanda, esleipena Marokoko Erreinuak 2030ean Espainiarekin eta Portugalekin batera antolatuko duen Futboleko Munduko Txapelketaren testuinguruaren baitan bere trenbide-sarea berritzeko planarekin lotuta dago. Hain zuzen ere, ONCFren helburuetako bat izango da herrialdeko trenbide-estalduraren tasa biztanleriaren % 87ra arte handitzea 2040era begira (gaur egun, tasa hori % 51koa da) Marokoko 40 herrialde baino gehiago elkartuta. Hain zuzen ere, gaur egun, herrialdeko trenbide-sareak 23 hiri lotzen ditu.